

Funtsezko-baliabideak:

EX-man taldea: Ondasunak gordetzeko takila zerbitzua.

- **Baliabide fisikoak:** Lokala, Ordenagailua, Telefonoa, Garajea eta diseinuak egiteko materiala beharko dugu. Lokalaren aldetik, itxia izatea onena iruditzen zaigu, euria egiten duenean babesteko eta arazoren bat badago pertsiana itxi eta takillak babesteko. Ordenagailua eta telefonoa oso beharrezkoak direla iruditzen zaigu, dena hortik kontrolatuko dugulako eta funtzionamenduaren parte izango direlako. Kotxea gure zerbitzu berezira erabiliko dugu, erosketak jendearen etxeetara eramateko, auto elektriko bat jartzea erabaki dugu, ingurumena ahalik eta gutxien kutsatzeko. Takillak egiteko materiala, txartelak... funtzionamenduaren oinarria dira, gure zerbitzuan behar beharrezkoak.
- **Baliabide intelektualak edo giza baliabideak:**

Adur eta Mireiaren sormena diseinua burutzeko erabiliko dugu, takillaren diseinua, lokala, kotxea... beraien ardura izango dira.

Eiderrek informatikari buruz egin zuen graduari esker enpresaren webgunea sortzeko baliabideak izango ditugu.

Nahiak dituen salmentetarako eta antolaketarako abileziak oso garrantzitsuak dira, azkenean gure enpresaren interesa saltzea eta etekinak lortzea delako. Horretaz aparte, hainbat hizkuntza dakizki eta honek beste herrialdeetako enprekin komunikatzea ahalbidetuko digu.

Azkenik, Xubanek enpresaren funtzionamendua antolatu eta zuzenduko du, hau da, zuzendaria izango da. Erabakiak denen artean hartuko dira baina Xuban egongo da hori guztia kontrolatzen eta zehazten.
- **Finantza-baliabideak:** Diru laguntza bat eskatuko dugu udaletxean, takilla zerbitzua jarriko dugun herri bakoitzeko udaletxeari laguntza bat eskatuko diogu eta beraiekin akordioak egingo ditugu, beraiek dituzten interesak entzunez. Beste alde batetik, hori guztiarekin ez dugu nahikoa kapital edukiko eta mailegu bat eskatu beharko dugu bankuan. Hainbat banku ezberdin aztertuko ditugu eta interes gutxien dituen bankua kontratatuko dugu.